

Bestelako Xedapenak

HERRIZAINGO SAILA

1265

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 7koa, Herrizaingo Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen aldaketaren Lege Aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.

Larrialdiak Kudeatzeko Legearen aldaketaren Lege Aurreproiektua prestatu du Herrizaingo Sailak; eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu beharko da aurreproiektu hori.

Xedapen orokorek herritarren eskubide eta interes bidezkoei eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikuluarekin bat etorriz; eta euren izaera dela-eta beharrezkoa bada, jendaurrean erakutsi beharko dira.

Eta horren ondorioz, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluarekin bat etorriz, aurreproiektua jendaurrean erakutsiko da; horretarako, 20 egun baliodeuneko epea egongo da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eta azaldutako guztiagatik, eta Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abeztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 14.2.h) artikuluarekin bat etorriz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Larrialdiak Kudeatzeko Legearen aldaketaren Lege Aurreproiektua jendaurrean jartzea hogei egun baliodeuneko epean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.— Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko asmoz, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen aldaketaren Lege Aurreproiektuaren edukia eskura egongo da Herrizaingo Sailaren Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzan (Gasteizko Donostia kaleko 1ean) eta Herrizaingo Sailaren Internet-eko web-orrialdean: <http://www.interior.ejgv.euskadi.net>.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 7a.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI CALONGE CRESPO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1265

RESOLUCIÓN de 7 de marzo de 2011, del Director de Régimen Jurídico y Servicios del Departamento de Interior, por la que se somete a información pública el Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley de Gestión de Emergencias.

El Departamento de Interior ha elaborado un Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley de Gestión de Emergencias, proyecto que ha de tramitarse conforme determina la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

De acuerdo con el artículo 8.1 de la citada Ley 8/2003, las disposiciones de carácter general que afecten a los derechos e intereses legítimos de los ciudadanos serán objeto de trámite de audiencia y, cuando la naturaleza de las disposiciones lo aconseje, se someterán a información pública.

A tal efecto, se somete el anteproyecto a información pública, de acuerdo con el artículo 8 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, considerándose para ello suficiente el plazo de 20 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 14.2.h) del 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

RESUELVO:

Primero.— Someter a trámite de información pública, por un plazo de veinte días hábiles, a partir del día siguiente al de la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, el Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley de Gestión de Emergencias.

Segundo.— A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior y en orden a la presentación de alegaciones, el contenido del Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley de Gestión de Emergencias se hallará disponible en la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios del Departamento de Interior, sita en Vitoria-Gasteiz, c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, y en la página web de internet <http://www.interior.ejgv.euskadi.net>.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de marzo de 2011.

El Director de Régimen Jurídico y Servicios,
IÑAKI CALONGE CRESPO.